


# the balde



0€

apirila / maiatza  
apiril / maiay

45

tamainak badu garrantzirik  
size matters



# 45



## the balde

### antsosain 1

31014 iruñea

t. +34 948 12 19 76

f. +34 948 14 82 78

### donostia ibde. 11 behe.

20115 astigarraga

t. +34 943 44 44 22

f. +34 943 33 60 66

info@thebalde.net

publi@thebalde.net

m. +34 686 485 980

www.thebalde.net

**argitaratzailea / publisher:** eragin.com · komunikazioa eragin sll

**editore / editor:** iñigo martinez

**zuzendaria / director:** koldo almandoz

**diseinu burua / head of design:** martin etxauri

**zuzendari komertziala / comercial director**

**& publizitatea / publicity:** iñigo martinez

**diseinua / design:** martin etxauri, txuma vazquez, angel aldarondo, ainara gorostiaga, igor astigarraga, sonia beroiz, ekaitz auzmendi, iker bereziartua.

**itzulpenak / translations:** 11 itzulpen, smiley, amaia orella,

**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:** arkaitz villar, uxeta labrit, tere sala, smiley, ion olano, rafa zubiria, julen azpitarte, lekuona arkitektoak, nerea lurgain.

**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:** the balde crew, fabrizio maltese, slinkachu, rafa zubiria, maite alberdi, luis vega.

**komikia / comic:** txol?

**harpidetza orria / subscription page:** uxeta labrit


**azaleko irudia / cover image:** fabrizio maltese

**aurkibidea / summary:** txol?

**inprimategia / printed at:** espacegrafic

**lege gordailua / legal:** na-3244/01

**The Baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:**

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



Eusko Jaurlaritzako  
Kultur sailak diruz  
lagundutako aldizkaria



Lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula?

bidali ieazkiguzu:

Imaginative, provocative and interesting works?

send them to:

[info@thebalde.net](mailto:info@thebalde.net)



IS ANYBODY  
OUT THERE?



#### CONCERT POSTERS

Those rock and roll bands that are not hits in radio formulas have a special charm. They are not only moved by business and often, they don't even record an album. They play live gigs every weekend and their main objective is you to have a good time. Gig Posters VOL 1 book collects those art pieces that have been used to advertise those concerts.

#### KONTZERTU AFITXAK

Irratiformuletan entzuten ez diren rokanrol taldeek xarma berezia izaten dute. Ez dira negozioagatik soilik mugitzen eta askotan ez dute diskorik grabatzen. Astebururo zuzenekoetan izerdia bota eta ongi pasa araztea da euren helburua. Kontzertu hauek iragartzen dituzten afitxak bildu eta zuzeneko musika hori irudikatzeke erabilitako arte zatiak gorde dituzte Gig Posters VOL1 liburu ederrean.

#### PLASTIKOZKO LORATEGIAK

Lea Turto artista finlandiarra, bere lanarekin, natura eta birziklatze prozesuen inguruko hausnarketa eskaintzen digu. Hiriko lorategietan egiten ditu bere interbentzioak. Plastikozko koilara zuriak hartuta, elementu organiko eta ez organikoak batuaz natura berriak sortzen ditu

[www.environmentalart.net/turto/garden.htm](http://www.environmentalart.net/turto/garden.htm)

#### PLASTIC GARDENS


Lea Turto, the Finnish artist has made a reflection between environment and the recycling process in his last work. He makes his interventions in city gardens. By the use of white plastic spoons, he creates new environments adding organic elements to non-organic elements.

[www.environmentalart.net/turto/garden.htm](http://www.environmentalart.net/turto/garden.htm)

#### MEETING SOMEBODY

Pernan, who never gave up drawing "doodles", is back to comic. He has arranged in a humble way, a special diary, in what nowadays are such fashionable methods like blogs, photoblogs and internet. If people want to tell us about their lives, at least, they should try to do it, like he has done, in an original and entertaining way.

[www.norbaitezagutu.com](http://www.norbaitezagutu.com)



#### NORBAIT EZAGUTU

Komikira itzuli da, bestetik inoiz "monigoteak" marrazteari utzi ez dion Pernan. Modu xume eta originalean moldatu du egun hain modan dauden blog, fotoblog eta "internet diario" generoa. Jendeak bere bizitzaren komeriak kontatu behar badizkigu, saiatu dadila behintzat, kasu honetan bezalaxe, originala eta entretenitua izaten.

[www.norbaitezagutu.com](http://www.norbaitezagutu.com)






# gozatu euskaraz

gure  
artean  
euskaraz



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



### PSILOCYBENEA

Arduradunei, merezi duten moduan sekula eskertuko ez zaien beste proiektu horietakoa da Psilocybenea. Hondarrabitik Irunera doan bidean dagoen arrosa koloreko P handia duen eraikinean ( ez, ez da pentsatzen duzuen klub horietako bat) kontzertu aretoa, grabaketa estudioa, entsegu aretoak eta diskoetxe bat topatuko dituzu. Hura ezagutzeko aitzakia ederra apirilaren 18an duzu. Artoartian festa antolatuta dute Gora Japon eta Akazauzte taldeen zuzeneko emanaldiarekin.

[www.psilocybenea.com](http://www.psilocybenea.com)

### PSILOCYBENEA

Psilocybenea is one of those projects whose promoters will never be thanked the way they should be. The building with a big pink P on it (no, it is not the club you are thinking of) on the way from Hondarribi to Irun holds a concert room, a recording room, rehearsal studios and a record company. You have the perfect excuse to get to know it on April 18th. "Artoartian" party will be held and Gora Japon and Akazauzte will play live.

[www.psilocybenea.com](http://www.psilocybenea.com)

### BREAKONSTAGE

It is Europe's most important break dance competition. We are not only proud because it will be held in Bilbao, but because it is a competition that has grown in the last years and apart from being a competition, it also gathers the best international break-dance groups. On this event, many other street activities will be celebrated as well. You cannot miss it!

[www.breakonstage.com](http://www.breakonstage.com)

## HAIRY SOUNDS

### MAIATZA ROCK BURLATA

The music festival organized by Euskal Herria peña is back. There is rock and roll atmosphere in the special headquarters of this peña. It is the 14th edition this year and this puts this event among the oldest ones in the area. Besides, all the concerts are for free. There are some groups yet to be confirmed, but Iñigo Cabeza-fuego's last project (Bizardunak) will be on stage.



### BREAKONSTAGE

Europako break dance lehiaketarik garrantzitsuena da. Eta ez zaigu ahoa berotu Bilbon ospatzen delako soilik. Azken urteotan gehien hazi eta garatu den lehiaketa izateaz gain ikusle ugari bildu eta nazioarteko breakdance talde onenak ekartzen dituelako ausartzen gara halakorik esaten. Kale arte jarduera ezberdinak biltzen dira gainera jaialdi hau ospatzen den egunotan. Ezinbesteko zita!

[www.breakonstage.com](http://www.breakonstage.com)



### MAIATZA ROCK BURLATA

Burlatako peña Euskal Herrian antolatzen den musika jaialdia bueltan da. Giro rokanroleroa izaten da peña honek duen egoitza berezian. 14. edizioa izango da aurtengoa eta horrek inguruko jaialdi beterano eta aitzindarien artean kokatzen du. Horri gainera kutsu herrikoia eta debaldeko kontzertuen eskaintza gehitu behar zaio. Aurtengo kartelean talde pilo dago konfirmatzeke, baina aurreratzen dugu Iñigo Cabeza-fuegoren mila proiektuen artean azkena izango dugula oholtza gainean: Bizardunak

PREST

**mm**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA



Ikasketan praktikoetan oinarritutako  
hezkuntza eredu propioa.

**IKASTEN IKASTEKO PREST!**



Euskal Herriko enpresa talde handienaren kide.

**ENPRESEKIN ELKARLANEAN  
ARITZEKO PREST!**



Etorkizuneko unibertsitatea,  
berrikuntza eta ikerkuntzaren bidetik.

**AURRETIK JOATEKO PREST!**



...eta gainera,  
aukera gehiago.

**UNIBERTSITATEA  
BIZITZEKO  
PREST!**





#### LEIOAKO UMORE AZOKA (Maiatza 21-24)

X. ediziora iritsi da kale artistak biltzen dituen jaialdia. Leioakoak aukera paregabea eskaintzen die programatzaile eta ikusleei, konpainien azken lanak ikusi eta haiekin harreman zuzena izateko. Makina bat konpainia pasa da eta bertan ikusi ahal izan dira lehenengoz gerora ezagun eta arrakastatsu bihurtu diren hainbat antzezlan. Udaberriaren etorrerarekin bat kaleak antzerkiz betetzen zaizkigu.

[www.umoreazoka.org](http://www.umoreazoka.org)



#### HUMOUR MARKET IN LEIOA (May 21st- 24th)

The festival that gathers street artist has reached its 10th anniversary. It is an unique opportunity for the audience to see the company's last works and to have a direct contact with them. There are many companies and people can enjoy many plays that later will become famous. With the coming of spring, streets will get full of plays.

[www.umoreazoka.org](http://www.umoreazoka.org)

## IRRI KALEAK IRRI ZALEAK



#### ANTONY AND THE JOHNSONS (Maiatzak 5)

Txori gisa aurkeztu zuen bere burua lehen diskoan. Bigarrenean argia negarrez jarri du. Nola definitu dezakegu azken urteotan ahots eta izaera bereizgarriarekin nabarmendu den fenomeno musikala? Zaila da. Donostian eskainiko duen kontzertura joateko thebaldetar batzuk aspaldian erosi genuen sarrera, beste batzuk ordea oparitura ere ez lirake joango...

[www.antonyandthejohnsons.com](http://www.antonyandthejohnsons.com)

#### ANTONY AND THE JOHNSONS (May 5th)

He presented himself as a bird in his last album. In the second one, he makes light cry. How can this music phenomenon that has stood out with a special voice and personality be described? It's not easy. People from the balde crew bought tickets for his concert in Donosti long time ago. Some others wouldn't go even if it was free...

[www.antonyandthejohnsons.com](http://www.antonyandthejohnsons.com)

#### AZKENA ROCK (Maiatzak 14-16 aurrera)

Azkena Rock-ek datak aldatu ditu. Uda amaierako jaialdia izatetik uda haserakoa izatera pasa nahi du. Honez gero ezaguna da musika jaialdi erraldoien artean artistak eskuratzeko existitzen den guda gordina. Ez dakigu noiz amaituko den zuzeneko jaialdi erraldoien moda hau, baina irauten duen bitartean, dinosaurioz betetako talde eta "revival"-en artean topatzen da, batzuetan, talde berri eta interesgarriak.

[www.azkenarockfestival.com](http://www.azkenarockfestival.com)

#### AZKENA ROCK (May 14th-16th)

Azkena Rock has changed its dates. It wants to move from being an end of summer festival to a beginning of summer festival. By now, the big fights to get artists is known. We don't know when the fashion for big festivals will end, but as long as it lasts, we can sometimes find new and interesting groups among bands full of dinosaurs and revivals.

[www.azkenarockfestival.com](http://www.azkenarockfestival.com)

restaurante

# Urepel

jateketa

Salamanca pasealekua 3  
20003 Donostia  
www.urepel.net - 943 42 40 40

www.siaazgetaria.com

hotelaria.com

saiazgetaria  
HOTELA

T 943 140 143 E info@siaazgetaria.com W www.siaazgetaria.com

BERRITZEN

GIPUZKOA  
Berrituzteko Surratzea  
www.gipuzkoaprendetza.net

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Berrikuntza eta Inbentario Gizaen Departamentua  
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

gaze  
gaztekinzale.net

Creativity and Innovation  
Innovate Your SME

I. EGIN Film laburren lehiaketa. Gipuzkoa'09  
I. Concurso de cortos EGIN Film. Gipuzkoa'09

gaze  
gaztekinzale.net

Gaia  
Izaera ekintzailea gazteengan

Tema  
Espíritu emprendedor en la juventud

www.gaztekinzale.net

GINARRIAK  
BASES

100%  
BERRITZEN

Aurkezteko epea Plazo de presentación  
Apirilak 21 Abril



#### ARTISTA BERRIEN LEHIAKETA ( Apirilak 21 Maiatzak 30)

Artista Berrien XLIII. Lehiaketako finalista eta irabazleen lanak ikusteko aukera izango dugu Koldo Mitxelena erakusketa aretoan. 35 urte bete ez duten artista berrien azken proposamenak klasiko bat bihurtu dira honez gero. Urtero, muturreko erreakzioak sortzen dituzten lan ausartetaz gozatzeko edo eta gogaitzeko aukera eskaintzen digu KM-k. Ez galdu, lagunartean edo gurasoekin eztabaidatzeko aitzakia ederra izango duzu.

[kmk.gipuzkoakultura.net](http://kmk.gipuzkoakultura.net)

#### NEW ARTISTS COMPETITION (April 21st- May 30th)

The works of the finalists and winners of the New Artists 43rd edition will be shown in Koldo Mitxelena's exhibition room. Proposals of these artists under 35 have already become a classic. Every year we have an opportunity to enjoy brave works that cause extreme reactions. Don't miss it. You will have a good excuse to argue with your friends and family.

[kmk.gipuzkoakultura.net](http://kmk.gipuzkoakultura.net)

## ARTE ETA PARTE



#### MUNDUAREN BIRA DOAN

Izenburu horrekin aurkeztuko da apirilean Somuga ekoiztetxeak egin duen animaziozko luzemetraia. Munduari bira 80 egunetan Jules Verneren klasikoaren usaina badu ere, bai mamian, bai eta irudi aldetik guztiz garaikidea eta eroa den istorioa kontatuko digu Banano, Betty Belu eta abarrek...

[www.somuga.com](http://www.somuga.com)

#### MUNDUARI BIRA DOAN

Around the world for free. That is the name of the new animation feature movie produced by Somuga. Based on the classic Around the world in 80 days by Jules Verne, the crazy adventure Banano, Betty Belu and many others live is totally different in it's content and in the visuals...

[www.somuga.com](http://www.somuga.com)

## KANPOTARRAKI NOMAHI

#### MONTEHERMOSO

Gasteizko kulturgunean *Living Together: elkarbizitarako estrategiak* erakusketak bizirik darrai. Ez delako soilik artelanak paretetan zintzilikatzea. Apirilak 22an Thomas Acton-ek, ingeles erromani ijito ibiltariekin izandako esperientziaz mintzatu da. Maiatzak 8an *Eva Illouz-ek Intimidade hotzak: Emoziozko kapitalismoaren sorrera* liburua aurkeztu eta hitzaldia emango du.

[www.montehermoso.net](http://www.montehermoso.net)

#### MONTEHERMOSO

Living Together: strategies for cohabitation is still on in Gasteiz's culture center. It is not just hanging art works from a wall. On April 22nd, Thomas Act will talk about his experience with English Romani gypsies. On May 8th, Eva Illouz will present her book *Cold Intimacies: the making of emotional capitalism*.

[www.montehermoso.net](http://www.montehermoso.net)



handiak txiki

argazkiak / shots: fabrizio maltese

the big small



SCHOOL ZONE

LAZAR

梅林

An aerial photograph of a lush green park. In the lower-left foreground, a golden statue of a woman holding a scale stands on a white stone pedestal. A paved path curves through the center of the park, with several people walking along it. In the lower-right, a group of people is sitting on the grass, some with picnic items. The background is filled with dense green trees and a blurred building structure.

### Gulliver's eyes

A fire in the palace breaks out, and Gulliver puts out the fire by urinating on it. There is a law against anyone urinating in the royal palace, and the Empress is so horrified by Gulliver's fire-fighting techniques that she never forgives Gulliver. The Emperor softens, though, and promises Gulliver a pardon for his crime. He offered the suggestion of simply taking both of Gulliver's eyes, so that he may still live and serve Lilliput.

### Gulliver-en begiak

Jauregiak su hartzen du eta Gulliver-ek, sugarren gainean pixa eginez amaitzen du sutea. Jauregian pixa egitearen aurkako lege bat existitzen da eta Enperatriza, Gulliverren suhiltzaile teknikaz ikaratuta, ez du barkatuko erraldoia. Enperadoreak gauzak arindu nahian bere krimena barkatuko diola agintzen dio. Iradokitzen du, besterik gabe, erraldoiari bi begiak kentzearekin nahikoa dela, modu horretan, bizirik mantendu eta Liliput zerbitzatzen jarrai dezakeela.

*Gulliver's Travels*

Jonathan Swift







www.slinkachu.com



Slinkachu's "little people" spread around the city providing a new scale to that city that we know. Every situation lights up our imagination and a story that goes beyond the moment that the picture captures comes to our mind. These small figures by Slinkachu are injected in the metropolis and reflect daily humorous, ironic and melancholic situations. After showing the micro world of the micro characters, he abandons their scales and comes back to picture the situation. That way, when we see how small these characters are, we realize how small we are when we are compared to our environment.

# txikiak handi

argazkiak/shots: slinkachu

## the small big

Slinkachuren "jende txikia" gure hirietan barna zabaldu egiten da, gure begiek ezagutzen duten hiriari eskala berri bat emanaz. Proposatzen digun egoera bakoitzak gure irudimenaren metxa piztu eta argazkiak jasotzen duen unetik haratago doan istorio bat ekartzen digu burura. Slinkachuk apropos eginiko figuratxo hauek, metropolian txertatzen ditu eta egunerokotasunak eskaintzen dizkigun egoera umoretsu, ironiko edo malenkoniatsuak islatzen dizkigu. Slinkachuk era anonimoan egiten du lan. Mikro pertsonaien mikro mundua erakutsi ostean, hauen eskala utzi eta gurera itzultzen da egoeraren argazki zabala eginaz. Modu horretan, pertsonaia hauek zein txikiak diren ikusten dugunean, gu ere gure ingurunearekin alderatuta zein txikiak garen jabetzen hasten gara.





maketak mihisean

«Duela bi urte auzo baten maketa eraiki nuen 1:87 eskalan. Maketa diseinu eta eraikitze prozesuak hilabete batzuk iraun zituen eta horrek nire irudimena elikatu zuen. Bertan bizi zen jendea eta hauen ekintzak irudikatuz, auzoaren historia moduko bat eraiki nuen.

Pinturak eszena baten zati edo narrazio baten pintzeladak dira. Irudi batzuk sekuentzialki daude pentsatuak eta ez dira orden jakin batean irakurri behar. Etxeak, pertsonak, kotxeak edo urtaroak margotuz, denboraren iraganean oinarrituriko istorioak kontatzea interesatzen zait.»



models on canvas



«Two years ago, I constructed a 1:87 scale model neighborhood. The process of designing and assembling the setting over several months triggered my imagination to develop characters to populate the place along with a loose timeline of events that would culminate in the neighborhood's history. The paintings are glimpses of a scene or fragments of a narrative. Some of the images are conceived of sequentially. While the images don't necessarily need to be "read" in order, I am interested in storytelling over time through repeated depictions of the same house or car or person, seasonal changes.»




no comment



argazkia/shot: maite alberdi

zurich





# in the red records

## rock bitxia rock gems

testua / by: julen azpitarte

Larry Hardy-k zuzentzen duen Los Angeles hiriko In The Red diskoetxeak pasadan hamarkadako rock and roll diskorik onenak plazaratu ditu. Horien artean, The Reigning Sound, The Black Lips, The Ponys edo The Dirtbombs taldeenak. Horri esker, zigilu independente ezezagun bezain baliotsua bilakatu da.

Hasiera batean, garage eta punk estiloetan bustiriko banden grabazioak argitaratzeari ekin bazion ere, egun, bere esparrua asko zabaltzen ari da eta art-rock estiloko taldeetan arreta berezia jartzen ari da. Izan ere, garage edo punk estilokoa baino, "rock bitxiko" zigilua dela esan ohi du Larryk. Horren isla, bere katalogoko hamaika izen, hala nola, The Intelligence, Country Teasers edo aurreko alean elkarrizketatu genuen Blank Dogs. Ez hori bakarrik, laster berragitalpenak plazaratzeari ekingo dio binilo bikoitzean, besteak beste, The Urinals, The Homosexuals edo 100 Flowers taldeenak.

Hardy-k 1992an abiatu zuen In The Red helburu bakarrekin: garai hartan erabat ezezaguna zen Detroiteko The Gories talde primitiboaren singlea kaleratzea. Geroztik, irizpide berdinari tinko eusten dio: interesgarriak suertatzen zaizkion rock and roll talde gordinen diskoak plazaratzea. Soinu garratzekiko zaletasuna gaztetatik datorkio. "Gaztea nintzenean eskolako lagun guztiak Kiss-ekin maiteminduta zeuden, eta niretzat erabat gorrotagarriak ziren. Nik, hasierako punk rock-ean sakondu nuen eta horretan xahutzen nituen osak".

"Here be The Gories" (1991) The Gories-en single preziatu hori argitaratu baino lehen In The Red-ek beste bi single plazaratu zituen eta hobby gisa hasi zen egitasmoa hura, lanaldi osoko jarduna bilakatu zaio Hardy-ri. Diskoetxea asko hazi zen bat-batean. Sasoi hartan Memphiseko Gibson Brothers taldea Los Angelesen zegoen jotzen eta In The Red-eko buruak singlea plazaratu nahi zien. Taldea ziplo desegin eta taldekide ohiak berarekin jarri ziren harremanetan diskoak egiteko egitasmo berriekin, tartean, Blues Explosion, 68 Comeback eta Bassholes. Azken horien disko osoa argitaratu zuen, eta handik gutxira Cheater Slicks bere talde kutunenetako baten LPa atera zuen. Singleak grabatuzetik LPak argitaratzera igaro zen.

Aurten, Hardy oso lanpetuta ibiliko da, aipaturiko berragitalpenak ez ezik, zigiluan erabat finkaturik dauden makina bat talderen diskoak ere plazaratuko bait ditu: The Strange Boys, Kid Congo, Blank Dogs, The Intelligence, Reigning Sound, Thee Oh Sees, Haunted George, TV Ghost, Christmas Island, Vivian Girls, Barbaras eta Wounded Lion. Finean, soinu adierazgailuen orratzak gorrian jartzeko doinuak.

Larry Hardy owner of L.A. record company, In The Red, has released the best rock 'n' roll in the last decade. Amongst them we have bands like The Reigning Sound, The Black Lips, The Ponys or The Dirtbombs. Thanks to all of these it has become one of the most valuable little unknown independent companies.

Though it started off releasing records by garage and punk bands, nowadays their list of artists has grown and now especially focuses on art-rock bands. Larry himself has stated that he sees the label as a place for 'rock gems' rather than garage or punk. That is clearly visible in the many bands on their catalogue like The Intelligence, Country Teasers or the band we interviewed in the last issue, Blank Dogs. And that's not all, it will shortly re-release double vinyls by The Urinals, The Homosexuals or 100 Flowers and others.

Hardy set up In The Red in 1992 with a single objective in mind: to release a single by the then completely unknown Detroit band The Gories. Ever since, he has maintained the same criteria: to release any interesting records by raw rock 'n' roll bands. His like of harsh rock sound comes from his very early days: "When I was young, all my school friends were mad about Kiss. I hated them. I was into the emerging punk scene of the time. That's were all my money went".

In The Red released two other singles before issuing the much sought after The Gories' single Here be The Gories (1991) and what had started out as a hobby soon became a full-time job for Hardy. The label grew overnight. At that time, Memphis band Gibson Brothers were playing in Los Angeles and the head of In The Red wanted to release their single. The band suddenly split up and the former members were soon in touch with Hardy to discuss recording their new records with their new bands. Bands like Blues Explosion, 68 Comeback and Bassholes. He released a whole LP by the Bassholes. Hardy soon after released an album by one of his favourite bands, Cheater Slicks. He had taken the step from recording and releasing singles to doing albums.

This year, Hardy is going to have his hands full. As well as the above mentioned releases, he will also be releasing records by bands long established on the label: The Strange Boys, Kid Congo, Blank Dogs, The Intelligence, Reigning Sound, Thee Oh Sees, Haunted George, TV Ghost, Christmas Island, Vivian Girls, Barbaras and Wounded Lion. So, enough sound to send the volume needle shooting off into red.

# GLOBAL FUNK

--- LEHEN URTEURRENA ---

**MAKALA + ARKA!**  
LE BUKOWSKI / DONOSTI  
17/04 23h30

**MAKALA + ARKA!**  
OUTLET SKUNKFUNK / Bailén 21, BILBAO  
18/04 18h30 - 20h30

**MAKALA + ARKA!**  
BULLITT GROOVE CLUB / BILBAO  
18/04 22h30

**MAC MOHALDO + MAKALA Dj's**  
LE BUKOWSKI / DONOSTI  
15/05 23h30

**MAC MOHALDO + ARKA! Dj's**  
BULLITT GROOVE CLUB / BILBAO  
16/05 22h30

LAGUNTZAILEAK:   

# HABITAT

Katixa Agirre

**HABITAT**

Igartza Saria irabazitako ipuin-bilduma, sei istorio luze biltzen dituena, era askotako harremanak kontatzen dituztenak, kokalekua dutelarik lokarri moduan: etxea.





 [www.elkargitaletxea.com](http://www.elkargitaletxea.com) 



esan nahi duzuna...

... nahi duzun hizkuntzan

**11itzulpen**

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala

[www.11itzulpen.com](http://www.11itzulpen.com)



# AUDIO

testua/by: arkaitz villar



## Olimpic

### Dirty towels

Discos Fever

Azalaren kolore fluoresentea ikustea besterik ez dago barruan aurkituko duguna ulertzeko. Doinu urbanoa, baina batez ere dantzalekura begira dagoena da Olimpic talde bilbotarrak eskaintzen diguna. Hamaika kantu sintetizadoreen erritmo dantzarri eta 80ko pop ilunenenaz beteta. "Teacher" edo "One night at the disco"-k hiritik gauez mugitzen lagunduko zaituzte.

Only by looking at the fluorescent cover, we can understand what is inside. Urban sounds, but directed to the dancefloor. This is what Olimpic, this band from Bilbao offers. Eleven songs to the rhythm of a synthesizer and dark 80's pop music. Songs like "Teacher" and "One night at the disco" will help you move around the city at night.



## Munlet

### Pong

Bi Batean Diskak / Screaminguy

Munduan proiektu bakarra da ACDC, Nuevo Catecismo Católico, Eskorbuto edo Cancer Moon bezalako bandak batzeko gai. Mendaron sortua da eta Munlet du izena. Estilo eta talde ezberdinen musika ulertu eta euren ikuspuntura moldatzeko duten gaitasunagatik txalotu nahi dugu Munlet. Kantu eta talde handiak, bertsio handietan. Euskal Herriko gazte sonikoak! There is only one project around the world that can get ACDC, Nuevo Catecismo Católico, Eskorbuto and Cancer Moon together. It was created in Mendaro and its name is Munlet. We want to congratulate them for their ability to adapt to the different ways that bands have of understanding and thinking about music. Big songs and bands in big versions. Sonic youth from the Basque Country.



## Ama

### Exposición permanente

Autoekoizpena

Ama donostiarrek poparen alderdirik pertsonalena lantzen jarraitzen dute. Lan berri honetan dantzalekura salto egiten ere ausartu dira, edo dantzalekuan salto egiten, bi oinen gainean erori eta ohiko kantu sorta sendoa eskaintzeko. Eguneroko bizitzan topatzen ditugun kezka existentzialek betetzen dituzte kantuok, eta askotan haiei aurre egiteko irteera erakusten digute. Bada esperantzarik oraindik!

This band from Donostia keeps on working on the most personal side of pop music. In their last work, they even jumped onto the dance floor or, while dancing on the dancefloor, they stood on both feet and offered a solid collection of usual songs. These songs are full of everyday life worries and sometimes, they show us the way out. There is still some hope!



## Buraka Som Sistema

### Sound of kuduro

Fabric/Pias

Joan den urtean argitaratutako "Black Diamond" indartsutik datoz ep berri honetako doinu eta kantuak. Buraka Som Sistema Angola eta Portugal artean banatuta dagoen proiektua izanik, beste inork baino hobeto nahastu ditu Afrikako indarra kaleko bizitasunarekin. Doinu bortitzak, txantxa gutxirako eraikiak eta beti ere ipurdia mugi araziko dizutenak.

The songs of this new ep are from last year's "Black Diamond" record. Buraka Som Sistema is a project between Angola and Portugal and that is why they successfully mixed the African strength and the street vitality. These are violent sounds, with no place for jokes that will make you move your body, for sure.



## Leda tres

### Mis operaciones habituales

Origami Records

Cadizko taldearen bigarren diskoak lehendabizikoaren ildo bera jarraitzen du: egile pop kantu sendoarena. Ondo landu eta konpondutako abesti hauekin aurreko proposamena berretsi dute. Gaztelaniaz abestuta, besteak beste, "Mis operaciones habituales" eta "Soy un forzado antiguo" kantueta hazi egiten dira eta erretzera helzen ez den bidaia eguzkitsua eskaintzen dute.

The second album of this band from Cadiz is headed in the same direction as the first one: strong pop songs. With these elaborated songs, they ratify their proposal. Songs in Spanish like "Mis operaciones habituales" and "Soy un forzado antiguo" make them grow strong and offer a sunny trip that never gets burnt.



## Pajaro Sunrise

### Done/Undone

Lovemonk 2009

Bi zatitan banatu du Pájaro Sunrise-ek lan berria : Done eta Undone. Lan bikoitza da eta gutzira hogeitabi abesti biltzen ditu. Kitarra akustiko eta oinarri elektronikoa leunez osatutako kantuek, Yuri Méndezek kezka biltzen ditu. Bakarrik eta taldearekin sortu dituen pieza hauek azaletik barrura bidai egiten lagunduko digute.

Pajaro Sunrise's last work is presented in two parts: Done and Undone. A double cd with 27 songs. Yuri Mendez uses acoustic guitars and soft electronic bases to express his thoughts. These songs composed by himself and with his group, will help us to travel from the skin to the inside of ourselves.

ipurdi gogorrak  
hard asses



Kuduroa punk da; "Do it yourself" filosofiaren adibide ederra. Herrialde garatuetan, aukera ezberdinak dauden errealitate batetan, DIY filosofia jarrera bat da gehienetan.

Beste hainbat tokietan ordea, har dezagun Angola adibide, DIY ez da filosofia bat, egunerokotasunean txertatua dagoen superbibentzia mekanismo bat baizik. Ez dago beste aukerarik. Horregatik, Kuduro musika, Favela Funk, Reggaeton eta beste hainbat 3. munduko musika garaikideren moduan punk hutsa da... lehenengo mundukoek deskubritzen ditugun arte.

Kuduro is punk; a wonderful example of "Do it yourself". In developed countries, where reality offers different possibilities, the philosophy of DIY is mostly an attitude.

In other places such as Angola, however, DIY is not a philosophy but rather an essential element in the everyday fight for survival. There is no other choice. That's why the Kuduro music, just like Favela Funk, Reggaeton and other contemporary third world music is pure punk... Until we in the first world gets our hands on it, that is.

### erritmo nahasketa indartsua

Kuduroa Angolako musika tradizionalari, Sungura, Ragga, Semba eta Afro Zouk erritmoak nahastu eta guztiari Europatik etorritako house eta techno erritmo elektrikoak gehitzean ateratzen den koktela da. 80. hamarkadan sortu zen, Luandako ekoizleek aipatutako erritmo ezberdinekin nahasketak egiten hasi zirenean, dantzaleku eta festa ezberdinetan euren trebezia erakusteko asmoz. Erritmo dantzagarri berri honek sekulako arrakasta izan zuen. Kuduro musikaren zabalkundearen, Luandako *candongek* (autobusak) eta *candonga* gidariak izan ziren bultzatzaile nagusiak. Musikari batek *candongeiroari* bere musika eman eta honek jarri egiten du, bidaiariei gustatzen

bazaie, behin eta berriro entzungo da eta jendeak musika hori grabatu egingo du...bestela, ba saiakera berria egitera. Kuduro musikan, hitzak, sinple eta zuzenak izaten dira. Gehienetan portugesez kantatzen badira ere askotan, Angolako beste hizkuntza ugariarekin nahastuta kantatzen dira. Kuduroan ez da erregela itxirik existitzen, dena da nahasketa. Askotan *gainera* herriaren errealitate sozio-politikoak izaten dute aipagai eta jakina, ezin esan Kuduroa agintarien musika estilo kuttunena denik.

### ipurdi gogorrek dantzan

Kuduro hitza, *culo duro*, ipurdi eta gogorra hitzen batuketatik dator. Musika hau dantzatzean ipurdi masailak gogortu behar direlako eta teoria baten arabera, dantza

honen inspiratzaileak halako ipurdia duelako. Tony Amado Kuduroaren "guruak" dio, Jean Claude Van Damme aktorearen film bat ikusten ari zela etorri zitzaiola dantzarako inspirazioa. Bere musikak eta Van Dammeren mugimenduek bat egiten zutela konturatu zen eta mugimendu horietan oinarrituta hasi zen dantzatzen. Kuduro dantzek ordea emakumeen mugimendu lizunetan lortzen dute euren mailarik gorena. Ipurdia atera, gogortu eta gerriari aurrera eta atzera eraginez dantzatzen da Kuduroa. Eta zin dagigu ez dela jaiotako dantza honen aurrean odol jariora hanka tartean kontzentratzen ez zaion gizasmerik.

### angolatik lisboara...lisboatik mundura

Kuduroa, Angolatik Lisboako auzo txiroetara bidaia egin zuen bertan bizi den angolar

jatorki komunitate zabalari esker. Berehala portuko dantzalekuek eta kalean antolatzen ziren sound system ezberdinetan lekua egin eta bertoko musikari gazteak soinu berri harekin esperimentuak egiten hasi ziren. Auzo horietako batean (Buraca) sortu zen Kuduro musika talderik ezagunena den Buraka Som Sistema. Egun, mundu osoko jaialdietan eta MIA bezalako artistekin lankidetzak egiten dihardute. Baina ez daude bakarrik, hementxe zuten interesa piztu dezakeen beste hainbat ipurdi gogor: Helder, o Rei do Kuduro, DJ Many, DJ SL, Daviz, Dog Murras, Tony Amado, DJ Nike, DJ João Reis, DJ Beleza, DJ Amorim, DJ Paulo Jorge, DJ Baby T, Sebem, Dj revolution, Dj znoobia, Bruno M, Puto Prata, Os F4, De Faya,...



### Strong mixture of rhythm

Kuduro is basically a massive mixture of traditional Angolan music, Sungura, Ragga, Semba and Afro Zouk rhythms added to European house and electronic techno beats. It first appeared in the 80s when Luanda producers started mixing the above mentioned music and rhythms as they showed off their DJ skills at dance halls and different party events. The new very danceable beat was a huge success. Kuduro music spread rapidly thanks mainly to Luanda *candonga* (bus) drivers. Musicians would give their music to the drivers and they would play it on their buses. If the passengers liked it, it would go on again and again, the passengers would eventually record the music and... if not,

well, back to the drawing board for something new. Kuduro lyrics are simple and direct. Mostly sung in Portuguese, many other Angolan tongues are also used at the same time. There are no rules in Kuduro. It's all about mixing stuff. The country's socio-political situation is often focused on by musicians. This is probably why those in power are not exactly huge fans of the music.

### Hard asses dancing

The word Kuduro is a combination of the words *culo* (ass) and *duro* (hard). The reason why is because when you dance to this music, you have to tense the cheeks of your bum (and according to one theory it's because the guy who came up the dance has a hard ass

himself). Tony Amado, Kuduro 'guru', says he first came up with the dance watching a Jean Claude Van Damme film. He realized his music and Van Damme's movements sat perfectly together and he based the dance movements on this. Kuduro dancing, nevertheless, really reaches the heights when it's danced by highly women. The moves are you basically stick your butt out, tense it, and you swivel your hips. We swear that there is not a man alive who can stop his blood rushing to his nether regions when confronted by the spectacle.

### From Angoa to Lisbon...

### From Lisbon to the world

Kuduro reached the poverty-stricken neighbourhoods of Lisbon via the local

Angolan immigrant community. It quickly found its way into the dancehalls and street sound systems in the port area. Local musicians soon began to experiment with the music. The most well-known Kuduro band, Buraka Som Sistema, come from one of those barrios, Buraca. They are now to be seen at any huge festival anywhere in the world and they collaborate with artists like MIA. But they are not the only ones. Here you have a few more 'hard asses' that might interest you: Helder, o Rei do Kuduro, DJ Many, DJ SL, Daviz, Dog Murras, Tony Amado, DJ Nike, DJ João Reis, DJ Beleza, DJ Amorim, DJ Paulo Jorge, DJ Baby T, Sebem, Dj revolution, Dj znoobia, Bruno M, Puto Prata, Os F4, De Faya,...





1945. urte hasieran amaitu zuten filmatzen Kolberg, eta korrika eta presaka estreinatu zuten urtarrilaren azken egunean Berlingo zine areto batetan eta La Rochelleko alemaniarren itsas basean.

## kolberg: azkena guda filma










Kolberg, nazi erregimenaren zinematografiako pelikularik garestiena izan zen. Gudaroste eta herritarren izpiritua eta morala igotzeko ekoiztu zen. Veit Harlan eta Wolfgang Liebeneiner izan ziren zuzendariak eta aktore nagusien artean garaiko alemaniar zineko izarrak: Kristina Soederbaum, Heinrich George, Paul Wegener, Horst Caspar, Gustav Diessl, Otto Wernicke eta Kurt Meisel. Filmak, Joachim Nettelbeck, Kolberg hiriko alkatearen istorioa kontatzen du. 1807an, frantses ejertzitoaren setioari aurre egin eta garaile suertatu zen heroiarena hain zuzen ere. 1943. urtearen amaieratik aurrera gudak hartu zuen itxura ikusita, erraza da ulertzen zein zen alemaniar gobernuaren helburua film hau egiterakoan. Hain zuzen ere 1943an hasi ziren Kolberg filmatzen, Agfacolor pelikulaz eta



## kolberg : the last war film

Filming on Kolberg finished at the end of 1945 and it was quickly premiered in a cinema in Berlin and at a naval base in La Rochelle.

Kolberg was the Nazi regime's most expensive film ever. It was made in an effort to boost the army and the people's morale. The directors were Veit Harlan and Wolfgang Liebeneiner and amongst the main actors were the then stars of German cinema: Kristina Soederbaum, Heinrich George, Paul Wegener, Horst Caspar, Gustav Diessl, Otto Wernicke and Kurt Meisel. The film tells the story of Joachim Nettelbeck, the mayor of Kolberg. The very mayor who overcame a siege by the French Army, beat them and became a hero. Aware of how the war was developing from 1943 onwards, it's easy to imagine what the German Government intended with the film. It was in 1943 when they started filming Kolberg with Agfacolor and with a budget of over 8 million marks. Though it was shot during wartime, thousands of troops were taken from the frontlines to enable the film to be made. To film the snow scenes, more than 100 train wagons of salt were transported to the film location and the last scenes were shot at the Babelsberg studios in



garaiko 8 milioi markotik gorako aurrekontuaz. Guda garaia izan arren, milaka soldadu ekarri zituzten fronte ezberdinetatik filma gauzatu ahal izateko. Negu eszenak filmatzeko, gatzez betetako 100 tren bagoi baino gehiago eraman zituzten film kokapenetara eta azken eszenak Potsdam-en zeuden Babelsberg estudioetan filmatu zituzten aliatuek hiria bonbardatzen zuten bitartean. Fronte ezberdinek atzera egin eta Alemaniaren mugak murrizten ziren heinean, filmaren negatiboa hiri batetik bestera eraman behar izan zuten.

Guda ofizialki maiatzaren 8an amaitu zen alemaniarrentzat. Apenas inork ikusi ahal izan zuen zinemagintza naziaren filmik ambiziosoena. Kopia ia guztiak desagertu egin ziren eta patuaren kapritxoaren eraginez edo, gobernu nazionalsozialistak ikur bihurtu nahi zuen herria, Poloniarrei eman zitzairen Potsdam-eko akordioetan. Bertoko hiritar alemaniarrek kanporatuak izan ziren eta Poloniak Errusiaren mesedetan galdutako beste lurraldeetatik etorritako jendez bete zuten aurrerantzean Kobrezeg izenez ezagutuko zen hiria. Hamarkada batzuk beranduago negatiboa berreskuratu eta 1965. urtean proiektatu zen berriro Kolberg, bitxikeria gisa eta nazien propaganda zinemagintza aztertzen zuten dokumentalarekin batera. Kurioso da; Galtzaileek propaganda filmak egiten dituzte beti... irabazleek ordea film historikoak.

Potsdam as the allies were bombing the city. As several war fronts were pushed back and Germany's borders were being gradually reduced, the film negatives had to be moved from town to town.

The war officially ended for the Germans on May the 8th. Hardly anybody got the chance to see Nazi cinema's most ambitious effort. Almost every copy disappeared and, what must have seemed like a twist of faith, Kolberg, the city the National Socialists had tried to turn into an icon, was handed over to Poland in The Potsdam Agreement. The Germans living there were driven out and the Polish Government filled it with people who had been forced to leave other Polish lands occupied by the Russians. Its name became Kobrezeg. Several decades later the film negatives were recovered and Kolberg was screened again in 1965, a weird look back at Nazi days and shown along with a documentary on Nazi cinema propaganda. It's kind of funny, in a strange way. The losers always make propaganda-filled films. The films by the victors, however, are... historical.



## bizarre, bizarro, bizar

The word *bizarre* comes from French and is used to describe things that aren't usual, that are peculiar, singular and out of proportion. At one time it was also used to describe homosexuals. In French, the word is a loanword from Italian. *Bizarro* means two things in Italian: It is used to describe people who are full of energy and people who are hot-blooded (we'll see the connection between the two meanings in a moment). With the language's two genders, men are *bizarro* and women *bizarra*. And this is where the idea of peculiarity or "bizarreness" comes from. We've been told time and again that the *balde* is a *bizarre* magazine. And because of this we decided to look into this special word and we came across a peculiar theory. This theory has it that *bizarro/bizarra* reached Italian from Basque. In 1607 Baltasar de Echaue wrote in his book "Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra bascongada" ("Towards the Antiquity of the Basque Language"), the word *vicarra* is used to describe brave soldiers who have hair on their faces and chests.

We're not going to deny that the *balde* is a bit *bizarre*, especially as we're quite proud of our bizarreness ... and at the same time we've realised that for us Basques bearded women are doubly *bizarre*.

Frantsesetik datorren *bizarre* hitzak, ohikoa ez dena, bitxia, arraroa, nabarmena eta neurririk gabekoa izendatzeko erabiltzen da. Garai batean homosexualak izendatzeko ere erabiltzen zen. Frantsesek italieratik hartu zuten maileguan *bizarre*. Italieraz *bizarro* hitzak bi esanahi ditu: Batetik pertsona kementsua eta ausarta izendatzeko erabiltzen zen, bestetik (aurrekoarekin harremana duela ikusiko dugu geroago) pertsona odolbero. Sexu bereizketa eginez gero, gizonak *bizarro* eta emakumeak *bizarra*. Eta hementxe dator bitxikeria edo "bizarkeria". Behin baino gehiagotan entzun dugu the *balde* aldizkari *bizarroa* dela. Eta horren ondorioz hitz xeblearen inguruan ikerketa egiten hasi eta teoria berezi batekin egin dugu topo: *bizarro/bizarra* hitza, italiarrek, euskaratik mailegatu zutela dioena. Baltasar de Echauek 1607. urtean idatzi zuen "Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra bascongada" liburuan, *vicarra* hitza erabiltzen du bularean eta aurpegiaren ilea zuten soldadu ausart eta odolberoaren itxura definitzeko. The *balde* *bizarro* samarra denik ez dugu ukatuko, are gehiago, harrotasunez daramagu gure *bizarra*... eta bide batez, jabetu gara euskaldunontzat, *bizar*dun emakumea, bitan dela *bizarra*.



hunting hide  
information  
post




On reaching Ibardin and starting up the hill, we reach the area where the pigeons fly over, known as Txori Lepo (bird's neck). This is where the new information post has been set up at Ibardin. Based on a pigeon shooting post, this singular, beautiful architectural work hangs in the air. The foundations are built on a slope. The parts were assembled in the car park next to it and then raised by a crane and put in place one-by-one.

Clad in wood, the metal nests painted black, the edges of the roof have bare sides, different sized windows...., all of this is used in line with "treehouse" principles, a spontaneous, attractive type of architecture. It is appropriate to its surroundings both in formal and in conceptual terms. And a recommendation. After going up into the air, it's worth getting your feet back onto the ground, standing on the concrete foundation and watching the film projected by the shadows of the chestnut tree's branches blown by the wind.

*Ibardin information area*  
*Lekuona architects*



## uso postua informazio kabi



Ibardinera iritsi eta maldan lehen pausoak ematen hasita Txori Lepo izeneko uso-pasa eremura iristen gara. Bertan paratu dute Informazio postu berria Ibardin. Uso-ehizarako erabiltzen diren postuak oinarri hartuta, airean zintzilikatu dute arkitektura pieza bakar, berezi eta eder hau. Oinarriak maldan ezarri eta bertako aparkalekuan egin ziren erakineko beste zati guztiak, gerora pausoka eta garabi bitartez, oinarri gainean igo ahal izateko.

*hegoak ebaki banizkio,  
nerea izanen zen,  
ez zuen aldeginen.*

*bainan honela  
ez zen gehiago txoria izanen  
eta nik...  
txoria nuen maite.*

*artze/laboa*

Egurrezko estalkia, beltzez margoturiko metalezko habeak, saihets biluziak erakusten dituen ertz teilatua, neurri ezberdineko leihoak,... osagai guzti hauek, "treehouse" kontzeptua jarraitzen duen arkitektura arina ekartzen digu gogora. Bai kontzeptualki, bai formalki guztiz aproposa dagoen ingurunerako. Eta gomendio bat, airean zintzilikatuta egon ostean, merezi du oinak lurrean jarri, eta porlanezko enbor oinarrian, haizeak lagunduta, uso postua kamuflatzen duen gaztainondoaren adarren itzalek proiektatzen duten pelikulari erreparatzea.

*Ibardin informazio gunea  
Lekuona arkitektoak*





**eragin.com**

diseinua, internet  
eta argitarapenak



[www.thebalde.net](http://www.thebalde.net)

sound gallery



udaberri elektrikoa

clothes/jantziak: nerea lurgain barcelona  
[www.nerealurgain.com](http://www.nerealurgain.com)







shoes-zapatak: [iris morata. irismorata.com](http://iris.morata.com)  
photographer-argazkilaria: [luis vega. fotoplatino.com/fp906](http://luis.vega.fotoplatino.com/fp906)  
make-up-makillajea: [carmen s. campo](http://carmen.s.campo)  
hair styling-horrazkera: [gurutze outeirai](http://gurutze.outeirai)  
model-modeloa: [itsasne ayensa gomez. fotoplatino.com/fp3479](http://itsasne.ayensa.gomez.fotoplatino.com/fp3479)



**Iruñeko  
Hizkuntza  
Eskola  
Ofiziala**




**EOIP IHEO**

948 20 63 43  
KOMPANIA KALEA 6 - 31001

[www.pnte.cfnavarra.es/eoip](http://www.pnte.cfnavarra.es/eoip)

Trebatutako  
**DISEINUGILE  
GRAFIKO** bat  
eta  
**(X)HTML/CSS**  
maketazaile bat  
behar ditugu.

bidali zure portfolio eta cv-a  
[info@eragin.com](mailto:info@eragin.com)-era



EN ACEITE DE OLIVA  
DEL NUORIE  
1 TARRIO 5€URUCOS  
3 TARRÓS 9€URUCOS  
ORUJO  
EL CANTABRUCCO  
BOTELLA, 70cl  
13€URUCOS  
+ 6 VASUCOS  
11€URUCOS BARATUCO!!

HOY-EL CORAZON-ME-LATE,  
CON-SOBAOS + CHOCOLATE...  
3'90€URUCOS ITAN-BARATUCO!!  
CHOCOLATES  
1 TABLETA 3€  
3 X 7'50€URUCOS  
ITAN-BARATUCO!!

## The E- era Aro E-roa

Ahoak bete hortz ditu,  
normala da halere,  
kolpean gaixo gelditu:  
aro E-roan gaude.

E-222,  
E-306,  
E-417,  
E-500 mesedez.

Dena da kontserbatzaile...  
lurrinak udareari,  
sagarrari argizari,  
super-emulsionatzaile!

Kimika da sukaldari,  
milaka egonkortzaile,  
teknika dugu garaile,  
eguneroko mirari!

Ahoak bete hortz ditu,  
normala da halere,  
kolpean gaixo gelditu:  
aro E-roan gaude.

E-222,  
E-306,  
E-417,  
E-500 mesedez.

Festara koloratzaile,  
kontserbatzaile guztiak!  
Utikan gauza garbiak!  
Nork izan nahi du galtzaile?

Pozoina eman elkarri  
(osagaiak osagarri),  
bustitzen ez den egarri,  
kentzen ez dugun gehigarri.

Ahoak bete hortz ditu,  
normala da halere,  
kolpean gaixo gelditu:  
aro E-roan gaude.

E-222,  
E-306,  
E-417,  
E-500 mesedez.

testua/by: ion olano

We are all so astonished,  
but it's normal after all  
to get sick (as never wished)...  
in the E- era we fall.

Gimme E-240,  
Gimme E-303,  
Gimme E-460,  
Gimme E-500, please.

Preservatives it's all about...  
adding perfume to the pear,  
wax to apples, oh my dear!  
Emulsifiers all around.

Chemistry is a great cook,  
thousands of stabilizers,  
technologies cooking dinners...  
it's a huge miracle: look!

We are all so astonished,  
but it's normal after all  
to get sick (as never wished)...  
in the E- era we fall.

Gimme E-240,  
Gimme E-303,  
Gimme E-460,  
Gimme E-500, please.

Let's go party, sweetener!  
Preservatives, all food dyes  
